



## Kutturru, atsedenleku berria Ikaztegietan

**ZABALIK** ▶ Atzo egin zuten berdegunearen inaugurazio ofiziala, Pilarika jaiaren baitan

**HORNITURIK** ▶ Bi zati, lau basoxka, ia 4.000 landare, aulkiak, mahaiak eta bi iturri ditu ▶ 5



Dantzariak eta herritarrak, inaugurazioaren unean, atzo. M. SAN SEBASTIAN



J. ASTIBIA

## Bat eginik presoei elkartasuna adieraziz

**IBARRA** ▶ Ehunka lagunek aldarrikatu dute «euskal preso politikoen Euskal Herriratzea eta estatus politikoa», Elkartasun Egunean ▶ 6

## ARMA eta GIDA



### baimenak

- Zitarik gabe
- Zure tramitazioa azkartzen dugu
- Donostiarako joan-etorriak ekiditzen ditugu
- Etxean jasoko duzu baimena



R.P.S 401/04

### 'SAN INAZIO' MEDIKU ZENTROA

San Inazio 2 (Muñazabal Altzarien ondoan) • TOLOSA

15:30etik 19:00etara

TOLOSA ▶

## Mugarik gabeko artea eta elkarbizitza

'Ipuinartean I'-eko erakusketan ▶ 2-3



Hector Luna, Ricardo Madana, Jeannine Obono eta Sükrü Karakus. J. S.

KULTURA ▶

# Mugarik gabeko artisten lanak

Arrakasta handia izaten ari da kultur askotako 'Ipuinartean I' erakusketa

JOXEMI SAIZAR

«Irakurri ipuin hau eta horren inguruko artelan bat egin eza-zu». Enkargu hori jaso zuten duela urtebete Tolosaldeko eta mundu osoko 36 artistak. Eta orain emaitza ikusteko aukera dago Aranburu Jauregian. *Ipuinartean I* du izena, eta Irazki elkarte kulturarritza eta Tolosa 750. Urteurrena Fundazioa dira antolatzaileak.

Tolosaldeko Mariano Arsua-ga, Susana Garcia-Sepi Caminos, Iñaki Epelde, Jose Luis Longaron, Txixi Orbegozo, Juan Luis Goenaga eta Iñigo Royo, hemen bizi diren Sükrü Karakus turkiarra, Hector Luna ekuadortarra, Maria Cuetto asturiarra, Alberto Letamendi ordiziarra eta Tytti Thusberg finlandiarra, Juan Luis Zumeta, Juan Gorriti, Alfredo Bikondoa, Julio Pardo eta Javier Alkain euskaldunak eta beste hainbat artista dira partaide, erdiak hemengoak eta beste erdiak kanpokoak: Alekos kolonbiarra, Fabricio Cajas ekuadortarra, Martina Dasnoy belgikarra, Antonio di Bellonio italiarra,

Gustavo Diaz Sosa eta Julio Matilla kubatarrek, Felix Edu Alo eta Ricardo Madana Mateo ekuatore ginearrak, Tony Grady erresuma batuarrak, Hiromi Inomata japoniarra, Darcy Kiefel estatubatuarra, Papin Lucadamo argentinarra, Willie Marquez andaluziarra, Hugh McCarthy irlandarra, Angela Mejias extremadurarra, Tony D Pajaro filipindarra, Barbara Stammel alemaniarra, Gorcin Stanojlovich bosniarra eta Tanya Tagaq kanadarra.

«Erakusketa hau errealitate batetik sortu zen, inmigrazio mugimendu batetik», adierazi dio HITZARI Sükrü Karakus proiektuaren batzorde eragileko kideak. Artista bakoitzari beste lurralde eta kontinente bateko ipuina eman zioten, horrela «herri, kultura eta hizkuntz desberdinak elkartrukatu». Makina bat koadro, eskultura, argazki eta instalazio sortu dira horrela. «estilo figuratibo eta abstraktoak nahastuz, mugarik gabeko estilo eta disziplinetan». «Erakusketa arrakastatsua izan da. Lan handia eman du», eranstean du Karakusek. Tolosan azaroaren 5a bitarte egongo da ikusgai eta, ondoren, Andoain, Eibar, Donostia, Zarautz, Iruñea, Leioa eta beste hainbat tokitan ikus ahal izango da, «ibiltaria izango da, bere izaera bezala».

## Ipuinak eta artea

Sükrü Karakusek hamabi urte daramatza Tolosan bizitzen. Orain arte erakusketa ugari egin izan du, bakarrik edo beste artista batzuekin batera. Horrelako asmo bat «aspaldi» omen zuen buruan, horregatik bere berri izan zuenean «beherala identifikatu» eta bat egin zuen proiektuarekin. «Hemen daramatzadan urte haue-tan nire estiloa aldatu egin da, dudarik gabe, baina Turkian bizitzen jarraitu izan banu ere bilakaera bat izango zen nire lanean», azaldu du.

Mexikoko Quetzalcoatlen kondaira azteka egokitu zaito artista turkiarrari. Eguzkia eta ilargiaren piramideak, Internetz lortutako suge buru bat eta



**Ricardo Madana.** Ekuatore Gineako mitologia eta egokitu zaien ipuineko Eskandinaviako mitologia uztartu ditu artista honek bere lanean. Herrialde gonbidatua izan da Ekuatore Ginea, eta jardunaldi batzuk izango dira hilaren 27tik 29ra. JOXEMI SAIZAR



**Iñaki Epelde.** Ohiko kolore eta irudiak erabili ditu artista tolosarrak erakusketa honetarako *Ametz gorriaren leihoa* obran. Japoniako *Urashima Taro* ipuina egokitu zaito. J. SAIZAR



**Iñigo Royo.** Sisiforen mito greziarra izan du abiapuntu argazkilarri tolosarrak instalazio hau egiteko. Hainbat elementurekin batera, soinua grabazioa ere erabili du. J. SAIZAR

## SÜKRÜ KARAKUS TURKIA

«Erakusketako lanean nire estiloa mantendu dut eman zidaten Mexikoko kondaira errespetatuz»

## HECTOR LUNA EKUADOR

«Euskal kulturak badu eragina nire lanean; lan egiten dut hemengo eta Ekuadorreko kondairekin»

## RICARDO MADANA EKUATORE GINEA

«Eskandinaviako mitologiako ipuina Ekuatore Gineako mitologiarekin konparatu dut»

beste hainbat elementu elkar-tu ditu, pintura, eskultura eta argazkia nahastuz. Bi koadro txiki ere baditu osagai, «neurriak hautsiz». «Nire lanean geruzak jarri ditut bata bestearen gainean. Forma organiko eta teknologikoak sartu ditut: ilargia, artoa, sugea... Nire estiloa mantendu dut elezaharra errespetatuz», azaldu du artista turkiarrak.

Hector Lunari euskal mitologiako ipuina egokitu zaito, *Jaungoikoak*. Koadro bat eta eskultura bat egin ditu hortik abiatuz, teknika mistoa erabiliz. «Odei tximistaren jaungoikoa islatu dut nire lanean, etxeraino ez dadin iritsi. Lurrean hazkazalak iltzatzen ditu, eta tximista bidaltzen du. Ondoren, lur azalera atera eta beroa ematen du», azaldu dio HITZARI. Bost urte daramatza hemen bizitzen artista ekuadortarrak eta bere estiloa «zerbaiz» alda-

tu omen da denboraldi horretan. «Lehen kobazuloetako grafismoak egiten nituen gehiago, eta orain Euskal Herriko eta Ekuadorko tagaeri kulturetako kondairekin egiten dut lan. Euskal kulturak eragina badu nire lanean. Herri kirolak, artzainak, baserriarrak ezagutu ditut», azaldu du.

## Ekuatore Ginea

*Ipuinartean I* proiektuak beste hainbat ekitaldi ere biltzen ditu, erakusketa honetaz aparte. Horietao bat Ekuatore Gineari buruzko jardunaldiak dira. Urriaren 27tik 29ra izango dira. Erakusketan ere herrialde gonbidatua izan da. Ekuatore Ginean jaio eta Tolosan bizi den Jeannine Obono izan da horren bultzatzailea.

Erakusketan lurralde hartako bi artistaren lanak daude ikusgai, Felix Edu Alo eta Ri-

cardo Madana Mateo. Azken artista honekin hitz egiteko aukera ere izan du HITZAK. Afrika osoan zehar erakusketa asko egin eta sari ugari jaso ditu artista honek. Erakusketa eta jardunaldiak direla medio, egun batzuk ari dira pasatzen gure artean.

Eskandinaviako mitologian inspiratutako ipuina egokitu zaito Madanari, Freya eta Oduren arteko harremanak azaltzen dituen. «Unibertsoaren sorrera azaltzen du, jainkoak eta erraldoiak ageri dira. Ekuatore Gineako mitologiarekin konparatu dut. Bilakaera bat egin dut. Munduaren sortzailearen eskua eta jainkoaren aurpegia ageri dira nire koadroan», adierazi du. Beste koadro bat ere jarri du erakusketan artista afrikar honek. Afrikako tradizioan garrantzia handia duten maskarak ageri dira bertan.



**Hector Luna.** Teknika askotarikoa erabili du oihalaren gainean Euskal Herriko *Jaungoikoak* ipuinean oinarrituz. J. SAIZAR



**Susana Garcia-Sepi Caminos.** *Ontzi pitzatua* egin dute tolosarrek izen bereko ipuin indiarrean oinarrituta. J. SAIZAR



**Sükrü Karakus.** Mexikoko Quetzalcoatlen elezaharra egokitu zaio artista turkiarrari, eta koadro handi bat eta bi txiki egin ditu bere estilora mantenduz eta kondaira errespetatuz. J. SAIZAR



Ostiraleko mahai-ingurua. Ezkerretik hasita, Hernandez, Carrizo, Gueye eta Lafont. JOXEMI SAIZAR

## Elkarbizitza mintzagai

«Zerbait utzi beharra» eta «errespetoa» beharrezkoak iruditzen zaizkie Kulturartekotasun Jardunaldietako mahai-ingurukoei

J. SAIZAR

Kultur desberdinen arteko elkarbizitza lortzeko bakoitzak beretik zerbait utzi behar du. Ondorio horretara iritsi ziren aurreko ostiralean Kultur Etxean Kulturartekotasun Jardunaldien barruan izan zen mahai-inguruaren partaideak, hau da, Abdoulaye Gueye Caritas Gipuzkoaren abokatua, Silvia Carrizo Malenetxea emakume etorkinen elkartearen ordezkaria, eta Ricardo Hernandez Nafarroako ijitu elkartearen federazioaren ordezkaria. Aurkezle eta moderatzaile lanetan Antxon Lafont aritu zen.

«Kanpotik datozen futbolariak eta jeque arabiarrek ez dute integratzeko arazorik, baina diru gutxi dutenek bai», azaldu zuen Gueyek. Haren iritziz, integratzea ez da molde batean sartzea, eta etorkin guztiak ez dira berdinak, «bakoitzak bere motibazioa, kultura, hizkuntza dauka». Askotan etorkina «eskulan merke» gisa ikusten dela uste du, eta estatuarentzat «diru sarrera» dela erantsi zuen. Senegaldarrak «kolore bakarrek» gizartearen aurrean «etnia eta kultura anitzeko gizarteak» defendatu zuen bere saioan.

Kolektibo hitza alde batera utzita, lehen unetik ijitoen «herri edo komunitate izaera» defendatu zuen Hernandezek. Inmigrazioa iritsi arte beraietaz inor ez dela gogoratu esan zuen, eta hemen mende asko daramatela gogorarazi zuen. Integrazio hitza ez zaio gustatzen «indarrean eginda, asimi-

lazioa, hizkuntza eta ohiturak uztea» esan nahi badu. Horren aurrean soziologo italiar baten esaldia defendatu zuen: «Elkartu nahastu gabe, bereiztu banandu gabe». Kulturartekotasuna «min ematen duen eta kosta egiten den prozesu luzea» dela erantsi zuen, eta bakoitzak beretik zerbait utzi egin behar duela. Ijitoen aurkako aurreiritziak salatu zituen. Bukatzeko, mugarik ez dutenez inoiz izan, Nazio Batuen aurrean «nazioen gaineko eta estatu anitzetako herria» izatea eskatu dutela adierazi zuen.

### Giza eskubideen beharra

Etorkin guztiak duten arazoaz gain, bereziki emakumeek dutena azpimarratu zuen Zumaia-ko Malenetxearen ordezkariak. «Bikote batean elkarbizitza zaila bada, zer esanik ez kultura eta arraza desberdinen artean. Turismoa egiten dugunean Afrika edo Amerikako kulturak oso interesgarriak iruditzen zaizkigu, baina hemengo eguneroko bizitzan ez hainbeste. Eskolan, lantokian, kalean, trenean arazo bat dira», esan zuen Carrizok. Desberdina dena oporretan edo GKE baten ikuspegitik «ona» omen da, baina ez «Ceuta eta Melillan hesia saltatzen duenean». Jendee askorentzat etorkinek «zorte handia» omen dute, baina ez dira konturatzen «jasan behar dituzten lan baldintzez eta bizimodu gogorraz». Langile askok «ahulena» zanpatzen delako erantsi zuen, hau da, etorkina. Elkarbizitza lortzeko «giza

eskubideak guztiontzat» direla hartu behar da kontuan bere iritziz, «ez jaioterria, kolorea, sexua, erlijioaren arabera».

Galdera ugari egin zuen aretoan bildutako jendeak eta mahai-koek iritzi gehiago emateko aukera izan zuten. «Integrazioa ez da asimilazioa, Frantziako eredu koloniala bezala», esan zuen Gueyek, eta politikariek boterea ez dutela galdu nahi erantsi zuen: «Hauteskundeetan bezperetan zergak jaitsi eta etorkinen legea gogorragoa onartu eta jendeak txalotu egiten du». Konstituzioaren arabera, espainiarrek eta Europar Batasuneko biztanleek atzerri-tarren aurrean dituzten abantailak ere aipatu zituen.

«Ijitoentzat integratzea gure izaera alde batera uztea izan da», azaldu zuen Hernandezek, eta kultur nortasunari «tinko» eutsi behar zaiola erantsi zuen. Hezkuntza sistema «zurruna» kritikatu zuen nafarrak «azken hogeituroetan egoera asko aldatu bada ere, hezkuntza planak ez direlako aldatu». Elkarrekin bizitzeko borondatea behar dela erantsi zuen, «baina horrekin bakarrik ere ez da nahikoa».

Nortasunaren alorrean ezer ez dela utzi behar defendatu zuen Lafont moderatzaileak: «Nire nortasuna mantenduz bizi behar dut besteekin».

Etorkinak «gutxiengoa» direla gogora ekarri zuen Carrizok, eta «errespeto marko minimoa» eskatu zuen. Azkenik, «desberdintasun baino berdintasun gehiago» ditugula aipatu zuen.

## GIZARTEA ▶



Ezker-eskuin: Alazne Benitez administraria, Ziortza Kamiruaga interpretea eta Leire Elola orientatzailea, SILPESek Amarotzen duen egoitzan. I.z.



LEIRE ELOLA

SILPES-EKO ORIENTATZAILEA

«Tolosaldean eta Goierriin gor gutxi daude, eta daudenak jubilatutik edo lanean ari dira dagoeneko»



ALAZNE BENITEZ

SILPES-EKO ADMINISTRARIA

«Ezgaitasunen bat dutenen artean langabezia tasa altuagoa da ez dutenen artean baino»

# SILPES: eskualdeko gorrak lan munduan murgilduz

Entzuteko gai ez diren lan eta formakuntza arloetako gabeziei aurre egitea du helburu Pertsona Gorrentzako Lan Bitartekotzarako Zerbitzuak

## LEIRE ZUBELDIA

**G**izarte honetan, ia gehiengo osoa entzuleak gara eta, beraz, baldintza horietara moldatu da eguneroko bizitza. Egoera horretan, entzuteko gai ez direnek komunikazio oztopo handiak gainditu behar dituzte. Murru horietako batzuk gainditzen laguntzeko, Tolosaldean —eta baita Goierriin ere—, SILPES erakundea (Pertsona Gorrentzako Lan Bitartekotzarako Zerbitzua) ari da lanean iaztik. Formakuntza berezitua duten lau langilek —administraria, orientatzailea, kudeatzailea eta zeinu hizkuntza interpretea— dihardute buru-belarri bulego horretan. Zerbitzu hau gehiago ezagutzeko asmoz, HITZA egon da haiekin.

SILPESeko arduradunek azaldu dutenez, ezgaitasunen bat dutenen artean langabezia

## DEIALDIAK ▶ TOLOSALDEAN ETA GOIERRIN

Datozen hilabete hauetarako hainbat ekintza antolatu dituzte SILPES eta GOR elkarteek, lankidetzan. Bestetik, Tolosaldeko eta Goierriko Gorren Elkarteak ere ekimen batzuk jarriko ditu martxan, bi eskualdeetan.

II. SENTSIBILIZAZIO ASTEA  
Azaroaren 12a, larunbata.

tasa altuagoa da ezgaitasunik ez dutenen artean baino. «Gure jomuga tasa horiek jaistea da», adierazi du Alazne Benitez erakundeko administrariak. Aitzitik, 50 langiletik gorako enpresak %2a ezgaitasunen bat duten pertsonak kontratatuz osatzera behartzen ditu legeak. Integrazio lege hau betetzen duten enpresa kopurua, ordea, oso txikia da.

Autoestima tailerra izango da elkarteko bazkideentzat. 10:00etatik 13:00etara, Tolosako Ekinbide Etxean (Ermerio Arrese).

**Azaroaren 26a, larunbata.**  
*Pertsona gorren osasun mentala* izeneko hitzaldia. Javier Muñoz psikologoaren eskutik. 18:00etan, Ordiziako Kultur Etxean.

Eremu zehatzagoetan sartuz, euren helburu nagusia entzuteko gai ez diren lan edo formakuntza arloetako gabeziei aurre egitea da. «Azken batean, hona etortzen diren gorrei enplegu bat aurkitzen laguntzea izaten da gure asmoa. Haren perfila eta gustuak kontutan izaten ditugu, eta ongien doakion lanpostura bideratzen dugun», gaineratu dute.

Erakunde honen lana, ordea, ez da amaitzen zerbitzuaren erabiltzaileari lanpostua aurkitzerakoan. Hala adierazi dute SILPESekoek: «Kontratu bat lortu eta gero, bulegoko kudeatzailea enpresariarekin jartzen da harremanetan, hau kontzientziatu eta presioa egiteko.

Demagun gorrak makina batean egin behar duela lan. Orduan, makina hori langile gorriaren baldintzetara moldatu beharra dago».

Iaz, sei hilabetez zabaldu zuten bulegoa. Aurten, berriz, dagoeneko hiru hilabete bete dira lanean ari direnetik. Jakitera eman dutenez, urte honetan ez zaie oraindik erabiltzailelerik gerturatu. «Tolosaldean eta Goierriin gor gutxi daude, eta daudenak jubilatutik edo lanean ari dira dagoeneko», jakinarazi du Leire Elola orientatzaileak. Horretaz gain, beste arrazoi bat ere egon daiteke tarteko: «Gorren mundua ez da gurea bezalakoa, beldurra dute. Izan ere, oztopo askori egin behar diote aurre».

Arazo handienetako bat formakuntza aldetik izan ohi duten gabezia da. Aitzitik, pertsona gor gehienek Lehen Hezkuntzako ikasketak dituzte soilik. Hutsune hori zertxobait betetzeko, tailer eta ikastaro moduko batzuk ere antolatu ohi dituzte.

Bestalde, GOR elkartearekin ere elkarlanean dihardute, eta hainbat ekimen prestatzen dituzte. Esate baterako, irailaren 22an umeentzako zeinu hiz-

kuntza tailerra antolatu zuten. Horretaz gain, aste honetan antzerki emanaldiak eskaini dituzte. Eta, azkenik, II. Sentsibilizazio Astearen berri ere eman dute: «Joan den urtean izan zen lehendabizikoa, eta aurten azaroan egingo dugu». Zehazki, azaroaren 12an eta 26an izango dira bigarren honetarako prestatu dituzten ekintzak.

Erakundeei eta beste lan bitartekotzarako zerbitzuei ere dei bat egin nahi izan diete: «SILPESen gorrei lan munduan mugitzen laguntzeko berezituak gaude, eta INEM, Langai edo bestelako lan bulegoek hara jotzen duten gorrak hona bidera ditzaten eskatzen diegu».

Beraz, gorreria pairatzen duen edonork enplegua aurkitzeko laguntza behar badu, 943 67 03 81ra deitu besterik ez da. Behin hitzordua jarrita, Tolosako Amaroako Auzoetxearen 31. zenbakian aurkituko ditu, ondoko orduetegian: 08:30etik 14:30era eta 15:00etatik 17:30era, astelehenean ostegunera. Ostiraletan, berriz, goizez soilik zabaltzen dute bulegoa. Lehen elkarrizketa horretan erabiltzailearen perfila aztertzen dute, nondik nora bideratu jakiteko. Hortik aurrera, eskari eta beharren arabera ibilbideari ekingo diote, ibai bat bere bidea eginez itsaso handi batean murgiltzen den eran.



**LIZARBI**

Kutxa, mahai, aulki etab.  
Altzariak • Zurgintza orokorra  
Tailakesuz eginak Zaharkinen berriztatzea

San Esteban auzoa  
Tel./Faxa: 943 650 063 • TOLOSA

## IKAZTEGIETA ▶ HIRIGINTZA



Dantzariek dantza egin zuten eta, ondoren, atsedenekua inauguratzeko zinta mozketa egin zuen Patxi Ulanga alkateak. MARTA SAN SEBASTIAN

## Jai eguna aitzaki, Kutturru atsedenekua estreinatu dute

Hainbat ekitaldi egin zituzten Pilarika jaiari; meza, inaugurazioa, bertso saioa...

MARTA SAN SEBASTIAN

Ekitaldiz betetako eguna izan zuten atzo Ikaztegieta. Pilarika jai ospatu zuten eta, gainera, Kutturru herriko atsedenekua berria inauguratzeko hautatutako eguna ere izan zen. Beraz, atzo Ikaztegieta festarako aitzakia dezente izan zuten.

Eguneko lehen ekitaldia meza izan zen, Pilarika ermitan. Asko izan ziren meza ondoren Kutturru berdegune be-

rriaren inauguraziora joan zirenak. Kutturru atsedenekua «Udalak gune hori txukuntzeko eta birlandatzeko egin duen apustuaren ondorioa» da. Utzitako lursailak ziren, eta atsedenekua egiteko leku aproposa zela pentsatu zuen Udalak. Hala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Obra Hidraulikoetako departamentuak eta Eusko Jaurlaritzak eman dituen diru laguntzei esker egin dute Kutturru berdegune.

Herriko atsedenekua berria estreinatzeke ohiko ekitaldia egin zuten atzo: lehenengo, apaizak gunea bedeinkatu zuten; ondoren, dantzariek aurrerakua dantzatu zuten; eta, azkenik, alkateak, Patxi Ulangak, zinta mozketa egin zuen. Hamaitakoa izan zen ekitaldia biribiltzeko egin zuten aukeraketa, Epelde eta Larrañaga trikitilarien konpainian.

Arratsaldean ere giroa ez zen falta izan Ikaztegieta, eta Pilarikaren omenezko ospaki-

zunak Zubiaurre jatetxe aurrean bildu ziren. Bertso saioa egin zuten, 18:00etan, Anjel Larrañaga eta Millan Telleria bertsolarien eskutik. Herri kirolei ere tartea gin zieten, eta bertaratutakoek Iñaki eta Iñaxio Perurena aita-seekek emandako ikuskizunaz gozatu zuten. Ugarteburu eta Esnaola atxurlariak ere enborra mozketan aritu ziren. Azkenik, eta afa ondorena bitarte, Epelde eta Larrañagaren erromeria izan zen protagonista Ikaztegieta.

## Cotorrotik Kutturrura

Ikaztegieta udalerrian kokatutako lurzattia da Kutturru. Gaur egun Kutturru izenez ezagutzen dugu. Garai bateko Cotorro izeneko baserri baten inguruan kokaturik dagoen gunea da. Horratx bere izena.

Lurzati hauek Tolosako Santa Casa de Misericordia izenekoaren jabegoak ziren; Ikaztegieta Joaquin Maria de Osinalde jaunaren herentzia bidez eskuratu zituen, 1941 ean. 1990ean azken egur aprobetxamendua lortu zen, bertan zegoen *insignis* pinuaren mozketa ondoren. 1991. urteaz geroztik erabilera eta aprobetxamendua Tolosako Udalaren esku egon zen, bertako alkatea Tolosako Larramendi Zahar Egoitza Udal Fundazio Publikoko lehendakaria izateagatik.

Azken urteotan lursailen utzikeria nabarmena zen eta inguru naturala erabat ahul-tzen zuten, ez baizen inolako garbiketa eta mantenimendu lanik egiten. Ikaztegieta Udalak atsedenekua proiektatu eta gunea birlandatzeko eta berreskuratzeko apustua egin zuen. Azkenik, 2000an, lursailen jabetza lortu zuen.

Atsedenekua bi zatitan banatzen da; baina zonale batetik bestera oinez joateko aukera ere badago. Guneak lau basoxka ditu, eta guztira ia 4.000 landare landatu dituzte, denak bertako haziak: haritzak, pagoak, gaztainak, gerezia, astigarrak... Gainera, aulkia, mahaiak eta bi iturri ere jari dituzte. Herriak badu azkenean denon eskura dagoen berdegunea. ◀

hitza

lagunen  
**txokoa**

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

## Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

**Avalon**  
o s a g a i a k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 24 30

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**  
**SHANTI KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

IBARRA ▶ PRESOK

# Presoen aldeko elkartasuna barra-barra, askotariko ekitaldiz betetako egunean

«Euskal preso politikoak Euskal Herrira ekartzea eta eurentzat estatus politikoa» aldarrikatu dituzte, bereziki Tolosaldeko preso eta errepresaliatuak gogoan



Herria goitik behera zeharkatu zuen manifestazioak. JAIONE ASTIBIA



Tolosaldeko presoak izan zituzten gogoan, bereziki. J. ASTIBIA



Giro ederrean bazkaldu zuten elkarteak. J. ASTIBIA



Herriko bi koadrilek herri kirol ikuskizun polita eskaini zuten. J. ASTIBIA

## JAIONE ASTIBIA

Atzokoan, egun bete-betean, goizean goizetik hasi eta gaua ederki sartu arteraino, herriko presoak izan zituzten gogoan bereziki, Ibarra, Presoen Al-

deko Elkartasun Eguna egin baitzuten: «Euskal preso politikoak Euskal Herrira ekar ditzatela eta EPPkari estatus politikoa aitortu eta onartu diezaitela aldarrikatu eta exijitu» zuten, errepresaliatuen senide

eta lagunek elkartasuna jasotzen zuten bitartean.

Eta aldarria modu askotara adierazteko bidea izan zuten bertaratutakoek, askotariko ekitaldiak izan baitziren herrian. Hasi, goiz hasi ziren,

mendizaleekin: inguruetako larre eta txendetan barrera oinezko ibilaldia, nahiz bizikleta martxarekin, aldizka jasaskaren bat botatzen bazuen ere, hego ukituarekin, giro aparta zegoen-eta horretarako. Kirola

egiteko aukera berriz ere arratsaldean izan zuten zaletuek, oraingoan herri kiroltan.

Bestelako ikuskizunek ere ez zuten hutsik egin, bazkalarrean herriko dantzariak beren emanaldia egin baitzuen; eta bazkalondan, Txan magoak umeen eta bertara gerturatu ziren gainerakoan lilura piztu baitzuen. Arratsalde-iluntzerako —erredakzio hau ixterakotan— «kontzertu sorpresa» eta DJ Bull-en dantza soinuak zeuden iragarrita.

Tartean, Sendi Ekintza elkarteak, berrogeita hamarren bat lagun elkartu ziren bazkarian, Sendi Ekintza berarekin batera, Xepla eta Deportiba elkarteak prestatutako. Arratsalderako indarrak berreskuratu zituzten, giro epel-epelean.

Baina euskal presoekiko elkartasun adierazpena herriaren txoko guztietara hedatu zuena, eguerdian egindako manifestazioa izan zen: kriselitu pare batek senideek zeramaten ikurrin handi batek ireki zuten bidea, era berean, atzetik Tolosaldeko euskal preso politiko eta iheslarien irudiak zermatzaten senideak zihoazela. Ondoren, *Estatus politikokoaren defentsan, Euskal presoak Euskal Herrira; presoekin elkartasuna* zioen pankartaren atzetik, aldarriekin bat eginez bertaratu ziren herritar andana. 300 lagun inguru bildu ziren, eta herriko kale nagusia zeharkatu zuten, aurretik Mullanbo perkusio taldearen dandor hotsak gidari zituztela. Ibilaldiaren ondoren «elkartasun adierazpenak» egin zituzten.

Eginkizun hauetan guztietan aritu ziren, «Eider, Ekaitz, Minde eta Maite herriko presoekin koadrilako lagunak» ez ezik, Ibarrara Herri Ekimena, Ibarako Askatasuna eta Gazte Asanblada; egun osoko egitaruari aurre egiteko herriko beste zenbait eragile eta elkarteren laguntza eta parte-hartzea izanik, «herriko hainbat talde eta pertsonaiaren atxikimenezko babesarekin». Eta, noski, ekitaldietan modu batera edo bestera parte hartu zuten guztienarekin.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

TOLOSA ▶ JAIK

# Berazubi jaietan da

Jai giroa izango da nagusi igandea bitartean Tolosako Berazubi auzoan



Ehun lagunetik gora elkartu ziren, atzo, plazan egin zuten bazkarian. NEREA LIZARTZA

## NEREA LIZARTZA

Asteartean eman zieten hasiera Berazubiko jaietara, eta ordutik ez dute etenik izan; atzokoan ere egitarau oparoa izan zuten. Egunari hasiera emateko, Tolosako Udal Txistulari Bandakoa aritu ziren kaleak animatzen. Ordu berean, auzoko hildakoen aldeko meza ere izan zen. Emakumeen toka lehiaketa egin ostean, *Nafarroa eguna* lelopean bazkaria egin zuten. 150 lagun inguru elkartu ziren auzoko plazan bazkaltzera. Ondoren, bazkaria jaisteko zezen txikiak eta poney-ak egon ziren zezen-plazan. Iluntzean auzoko plazan egin ziren pintxo lehiaketarekin eta futbol txapelketaren egunari amaiera eman zioten.

Datozen egunetan ere jai giroa izango da nagusi Berazubian. Izan ere, bihartik igandera bitartean ere ekitaldi ugari antolatu dituzte. Egunean zehar, orotariko ekitaldiak egongo dira, hala nola, txapelketak, partiduak, haurrentzako jaialdiak, bazkariak... Gauetan, berriz, kontzertuak ez dira faltako: bihar Drindots taldearen eskutik dantzaldia egongo da, eta etzi, ostera, Ken 7 eta Muchachito Bombo Inferno taldeak ariko dira zezen-plazan; azken hauetara joateko sarrera ordaindu egin behar da.



Urko Munduate txirrindularia Ibarrazurako jaitzieran. NEREA LIZARTZA

## Mendi bizikleta maratokia

Eguneko zitarik garrantzitsuenetarikoa Mendikute elkarteak antolatutako Mendi Bizikleta Maratokia izan zen. Jende andana bildu zen proba ikustera; batzuek mendiko hainbat gurutetatik ikusi zuten eta beste batzuek, aldiz, helmugaraino

zean nahiko beldurtuta irten gara euria ari zuelako, baina arrisku gehiegirik ez zegoen». 09:30ean Tolosatik irten, eta Leburu, Gaztelu, Uli, Oresa, Lizartza, Narbaritzu, Ibarrazur, Añi, Altzo eta Oilaun igaro ostean, Tolosan zuten helmuga maratoilarietara. Lehena, bi ordu pasatxo zirenean heldu zen, eta azkena, ia bost ordutara. Proba 129 lagunek hasi bazuten ere, 11k utzi egin behar izan zuten amaitu gabe. Soilik bi emakume zeuden partaideen artean, Nekane Lasa eta Ana Yunta, alegia; biak elkarrekin iritsi ziren helmugara. Aitor Urruzola lasartearrak irabazi zuen, Aitor Olano altzotarra irten zen bigarren eta Ugaitz Artola billabonatarra, berriz, hirugarren sailkatu zen.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Inkesta.** Hasi berri da Bertsolari Txapelketa Nagusia. Gure eskualdetik, Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Bixente Gorostidi eta Jexux Mari Irazu ari dira txapela lortzeko lehian. Nor iritsiko da urrutien? Bozka ezazu eta eman zure iritzia webgunean!

## SAILKAPENA ▶

**Mendikuteran Mendi Bizikleta Maratoko sailkapen orokorra.**

### Gizonezkoak

Izena	Denbora
1. Aitor Urruzola	2:18:00
2. Aitor Olano	2:26:24
3. Ugaitz Artola	2:28:35
4. Urko Munduate	2:31:30
5. Iñaki Landabea	2:36:30
6. Pabli Suarez	2:37:42

### Emakumezkoak

1. Nekane Lasa
2. Ana Yunta

## EGITARAU ▶

### BIHAR

**22:30.** Danborrada auzoan barrena.

**00:00.** Dantzaldia Drindots taldearekin.

### ETZI, LARUNBATA

**11:30.** 3x3 futbito txapelketa.

**14:30.** Babarrun-jatea.

**16:00.** Mus txapelketa herrikoa.

**16:00.** Haur jaialdia.

**16:30.** Gazteen eta helduen arteko futbol partidua.

**19:00.** Buruhandien irteera.

**23:00.** Ken 7 eta Muchachito Bombo Inferno taldeen kontzertua, zezen plazan.

**Fundazio 750.** Urteurrena Fundazioak antolatuta.

Sarrera ordaindu egin behar da.

**Ondoren.** Djen emanaldia, plazan.

### IGANDEA

**09:00.** Diana txistulariekin.

**12:00.** Toka txapelketa.

**13:00.** Paella lehiaketa.

**14:30.** Bazkaria paella lehiaketako partaidentzat.

**19:00.** Dantza erakustaldia.

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Langilea.** Iturgintza, berokuntza eta gas lanetarako langilea behar da. Interesatuak deitu 656 41 68 08ra.

**Garbiketa.** Bi neska eskaintzen dira portal, eskaratze, tabernan garbiketarako. Deitu 943 68 30 57 eta 943 68 35 70 telefono zenbakietara.

### AURKITUAKOAK

**Zakurra.** Zakur bat aurkitu da Montezkuen. Euskal Artzaina nahasketa, marroia, lepoko marroarekin, lau bat hilabetea. Galdu duenak dei dezala 943 65 00 30 telefono zenbakira (Koldo).



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Kultur Astearen baitan antolatutako argazki lehiaketa. Lanak hilaren 19a baino lehen aurkeztu behar dira, Kultur eta Kirol Etxean, 15:00etatik 21:00etara.

**Ibarra.** Alurr dantza taldearen 10. urteurreneko DVDa salgai dago, 12 eurotan. Ibarako Zubiaurre tabernan eta Lurdes dendan, eta Tolosako Ortzadar dendan.

**Leaburu.** Hilaren 19an hasiko den sendabelar ikastarorako izen-ematea bihar amaituko da. Udaletxera jo behar da. **Leaburu.** Gernikako Azokara joateko autobusa antolatuta du Udalak. Oraindik lekua badago eta bihar dela izena emateko azken eguna jakinarazi nahi die Tolosaldeko herritarrei. Joan nahi duenak udaletxera deitu behar du (943 67 59 31).

**Tolosa.** Monreal-Unzue ibaldia antolatuta du Alpino Uzturrek igandean. Higa-Elomendi (1.289 m.), Txanburu (1.135 m.) eta Unzue (990 m.) mendiak igoko dituzte. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5, behea, 943 65 27 89).

**Villabona.** Aizkardikoek antolatuta, Euskal Herriko hiriburuak uztartuz egitasmoaren baitan, Lizarraga-Urbasa-Opakua irteera egingo dute igandean. Izena emateko, deitu 943 69 44 58 telefonora edo Aizkardiren egoitzara azaldu, gaur, 21:00etatik 22:00etara.

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** Ipuinartean / egitasmoaren erakusketa. Azaroaren 5a arte, Aranburu Jauregian.

**Zizurkil.** Luis Maria Nuñez, Agurtzane Nuñez eta Amaia Nuñez margolarien koadro erakusketa. Hilaren 23a arte, Atxulondo kultur etxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.  
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Euri tanta batzuk erori ziren goiz osoan. L. MONTES



Ferialekura iristean, korrikalariak txaloak jaso zituzten. L. MONTES

# Behobiarako test aproposa

**TOLOSA ▶ 368 lasterkaririk hartu zuten parte atzo San Estebango XVIII. Herri Krosean; denborarik onena Richard Fernandez oñatiarrak egin zuen**

**MARTA SAN SEBASTIAN**

**T**olosako kaleak korrikalaririk bete ziren atzo; izan ere, San Estebango XVIII. Herri Krose burutu zen, Tton-ttor elkartearen eskutik. Richard Fernandez Alcala oñatiarrak egin zuen azkarren lasteketa, gizonetako senior mailan. Emakumeen kategorian, aldiz, Nieves Zarza gas-teiztarrak egin zuen denborarik onena.

Nahiz eta euri tantak erori goiz osoan zehar, ikuslego handia bildu zen Tolosako kaleetan lasterketa ikusteko go-goarekin. Lasterketa 368 kiro-larik hasi zuten, eta gehienek amaitu ere egin zituzten 10 kilometroak. 8k soilik ez zuten helmugako zinta pasatu. Aurtentzen baino partaidetza handiagoa izan da. Lasteketan parte hartu zuten korrikalarietatik 92 tolosarrak izan ziren. Behobia-Donostia probarako test aproposa izan da askorentzat.



Ikuslego handia bildu zen Tolosako kaleetan barrena korrikalariak animatzeko asmotan. LEIRE MONTES

**SAILKAPENA ▶**

**Jubenilak (gizonetakoak).**

**Izena Denbora**

1. Aritz Garin (Villabona) 0.35.04

2. Mikel Odriozola (Tolosa) 0.43.26

3. Iraitz Pikabea (Tolosa) 0.47.11

**Seniorrak (gizonetakoak).**

**Izena Denbora**

1. Richard Fdez. (Oñati) 0.31.00

2. J. J. Cuadrado (Ordizia) 0.31.45

3. Manu Hurtado (Beasain) 0.32.05

**Seniorrak (emakumetakoak).**

**Izena Denbora**

1. Nieves Zarza (Gasteiz) 0.36.24

2. Amaia Insausti (Olaberria) 0.36.59

3. Isabel Dumal (Asteasu) 0.38.08

**Beteranoak (gizonetakoak).**

**Izena Denbora**

1. M. A. Oncina (Legazpi) 0.32.38

2. Jesus Ramirez (Iruñea) 0.33.40

3. Iñaki Beltz (Errenteria) 0.33.42

**Beteranoak (emakumetakoak).**

**Izena Denbora**

1. Mari Sol Martinez (Irun) 0.42.38

2. Lourdes Amonariz (Tolosa) 0.48.11

3. Arantxa Moco-roa (Tolosa) 0.48.11

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Zortza Iturrioz Irigoien (Tolosa). Gaur 2 urte.  
Zorionak familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Aitor Galarza Altuna (Amezketza). Gaur 3 urte. Zorionak familia guztiaren partez. Muxu asko.

**HITZA,**  
zorian agurren  
tartea

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 beheko  
TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa  
LEITZA

Mesedez, argazkia bi  
egun lehenago ekarri.  
Mila esker!